

Talcott Parsons

Josemari Sarasola

Gizapedia



- 1902-1979
- Ameriketako Estatu Batuetako soziologo ezagunena izan zen.
- Massachusetts-eko Amherst College-n humanitateak ikasi zituen 1924 urtera arte. Han idatzi zituen bere lehen lanak soziologiari buruz. London School of Economics delakoan eta Heidelberg-eko Unibertsitatean ere ikasi zuen.
- Bere jardun profesional nagusia Harvard-eko Unibertsitatean burutu zuen.
- American Sociological Association elkarteko presidentea izan zen.
- *The Structure of Social Action*, 1937.
- *The Social System*, 1951.
- Max Weber etsa Durkheim-en eragina nabarmena da bere lanetan.

- Soziologo funtzionalista: gizartea sistema ordenatu eta orekatu gisa aztertzen du. Gizarte aldaketa ere ebolutiboa da, hausturarik gabe.
- Gizarte zientzia guztiak epistemologia komun batez batzea du helburutzat, *grand theory* delako baten baitan.
- Bere ikuspuntua sistemikoa da: gizataldeak eta gizarte erakundeak sistema moduan ikusten ditu, *agindu funtzional* hauek dituztenak: ezarritako helburuak betetzea, adaptazioa ingurunera, kideen arteko integrazioa, eta latentzia (kideen motibazioa).